

ARAZO EGOERA: Gure atea zabalik zuentzat!

Arloa: EUSKAL HIZKUNTZA ETA LITERATURA
Gaia: Lagunarteko gutuna
Maila: DBH 1. maila
Saioak: 8 saio
Proposamenaren justifikazioa: Proiektua matrikulazio kanpainaren inguruan egiteko diseinaturik dago. LH6. mailako ikasleak DBHra pasatuko dira, eta nahiz eta ikastetxe berean egon, espazioak, ordutegia, irakasleria eta ohiturak desberdinak dira. Batzuk DBHra pasatzeko irrikaz egongo dira, beste batzuk beldurrez, itxaropentsu... Eta nork ezagutzen ditu hobeto sentimendu hauek egoera berean pasa den urtean egon ziren ikasleek baino? Egunotan mota guztietako ekitaldiak egongo dira matrikulazio kanpainaren inguruan: batzarrak, bisitaldiak, erakustaldiak eta abar. Bada 1. mailako ikasleak eragile bihurtuko ditugu 6. mailako ikasleen harrera egiteko institutua nolakoa den lagunarteko gutun baten bidez kontatuz. 1. mailako ikasleak izango dira bidegileak, kanala gure ikastetxeko bloga: www.blogablogamarinela.wordpress.com bertan argitaratuko baitira gutunak, eta bertan ere idatzi ahal izango dituzte 6. mailakoek iruzkinen bitartez beren zalantzak edo iritziak.
Arazo-egoera: A. Testuingurua: 6. mailako neska-mutilek matrikula egin behar dute datozen egunotan institutuan, baina ez dakite hemen zer topatuko duten. 1. mailako ikasleak eragile bihurtuko ditugu haiei harrera egiteko. B. Arazoa: Zer egin dezakegun 6. mailako ikasleei laguntzeko? C. Helburua: Lagunarteko gutuna testu tipoa ezagutzea eta sortzea
Eginkizuna: Proiektu honen bidez DBHra etortzeko dauden ikasleei gutunak idatziko dizkiete haiek 6. mailan zeudenean nola sentitzen ziren kontatuz eta hemen topatuko dutena haien hitzekin deskribatuz.
Oinarrizko kompetentziak: A. Zeharkakoak: Hitzek eta modu digitalean komunikatzeko kompetentzia Ikasten eta pentsatzen ikasteko kompetentzia Elkarbizitzarako kompetentzia Ekimenerako eta ekiteko espiriturako kompetentzia

Izaten ikasteko konpetentzia
B. Diziplina-konpetentziak:
Hizkuntza- eta literatura-komunikaziorako konpetentzia

Helburu didaktikoak:

- * Lagunarteko gutunaren egitura eta ezaugarriak ezagutzea.
- *Testu bat sortzen laguntzeko IKTak erabiltzen jakitea.
- * Idatzizko hizkuntzaren berezitasunez ohartzea.
- *Testuaren kohesioaren garrantzia ulertzea.
- *Lana planifikatzea eta ondo garatzea.
- *Talde-lanean trebatzea

Edukiak:

- ✓ Lagunarteko gutunak irakurtzea
- ✓ Lagunarteko gutunen konparazioa eta analisisa
- ✓ Lagunarteko gutunaren planifikazioa
- ✓ Data nola idatzi
- ✓ Lagunarteko gutunaren agurrerako formulak.
- ✓ Deitikoak ezagutzea
- ✓ Ordezkapen lexikalaz baliatzea
- ✓ Informazio eta Komunikazio Teknologiak gutuna egiteko eraginkortasunez erabiltzea
- ✓ Ikaskuntzari berari buruz hausnarketa egiteko estrategiak erabiltzea
- ✓ Talde-lanean era aktiboan parte hartzea
- ✓ Jarrera positiboa izatea egindako lana berrikustean

Jardueren sekuentzia:

- A. Hasierako fasea: 1,2,3,4,5
- B. Garapenaren fasea:6, 7, 8, 9, 10
- C. Aplikazio eta komunikazioaren fasea:11,12,13,14,15,16,17,18
- D. Orokortzea eta transferentzia:19,20

Ebaluazioa

- A. Adierazleak:
 - Ea LHko 6. mailako ikasleei zuzenduta dagoen.
 - Ea LHko ikasleei erreferentzia egiten dien (deitikoak)
 - Ea Erregistro egokia erabiltzen duen
 - Ea LHko 6.mailako feedbacka espero den
 - Ea gutunaren atalak ongi bereizten diren
 - Ea sarreran aurkezpena agertzen den
 - Ea gorputzean haien esperientzia agertzen den.
 - Ea gorputzean DBH nolakoa den azaltzen den.
 - Ea agurrean feedbacka agertzen den.

- Ea paragrafoka antolaturik dago eta bakoitzak ideia bakarra garatzen duen
- Ea paragrafoen bidez progresio tematiko argia dagoen
- Ea testu-antolatzaileak eta lokailuak ondo erabiltzen diren.
- Ea puntuazioa zuzena den.
- Ea perpausak sintaktikoki ondo egituratuta dauden.
- Ea testua gramatikalki zuzena den atal hauei dagokiela: aditza eta deklinabidea.
- Ea lexiko zuzenaerabiltzen duen eta errepikapenak saihesten diren. (sinonimia, elementu anaforikoak, kataforikoak, elipsia...)
- Ea ortografia zuzena den.

B. Tresnak:

Ikaslearen kontrol zerrenda. 17 jarduera

Autozuzenketerako txantiloia 19 jarduera

Irakaslearen ebaluazio txantiloia. 20 jarduera